


# BAKIO.KO KRONIKA

## UDALAREN WEBGUNE BERRITUA AURKEZTEN DIZUEGU



Webgunearen berrikuntza honen helburua da tresna hau gaur egungo estrategiari egokitzea. Izan ere, Nahi dugu herritarrek zeregin garrantzitsua betetzea udalaren komunikazio proiektuan eta erakundearen eta bakiotarren arteko zubi-lanak egitea, udal integratzaile eta parte-hartzailea lortzeko.

"Bakiotarrok" (<http://www.bakio.org/eu-ES/Bakiotarrok>) sekzioa nabarmendu nahi dugu. Atal horren xedea da bakiotar guztiak gure proiektuaren erdi-erdian jartzea. Bertan Bakioko bizimoduarekin zerikusia duen guztia aurkitu ahal izango duzue.

Webgunea berregitaratzeko lanean aurrerapauso handia egin dugun arren, edukiak berritzen eta eguneratzen jarraituko dugu apurka-apurka.

Proiektuaren alde aktiboa izaten animatu nahi zaituztegu!

## BAKIOK BI DESFIBRILADORE DITU ERABILGARRI

Bakion bi desfibriladore jarri dira, bata kiroldegian eta bestea osasun zentroan. Azken hau kanpoaldean jarri da, larrizko kasurik egonez gero, behar duenak momentuan erabil dezan. Garrantzitsua da herritarrek osasunaren garrantziaz jabetaraztea. Izan ere, kontuan hartu behar dugu, anbulantzia batek gubxienez 20 minutu behar dituela Bakiora iristeko; beraz, bihotzekorik edo antzekorik izanez gero, presaz jokatu beharra dago. Horregatik, udalak tailerrek emango ditu desfibriladoreak nola erabili behar diren azaltzeko; gainera, tailerretan lehen sorospenei buruzko

oinarriko ezagutzen berri ere emango da. Ikastaroak doakoak izango dira eta epea zabaldu da apuntatzeko. Kultur etxera edo turismo bulegora etorrira edo [www.bakio.org](http://www.bakio.org) orrialdearen bitartez apuntatu zaitzeteke. Apuntatzeko epea maiatzaren 15ean amaitzen da. Guztiok erabili ahaliko (edo, akaso, behar) dugu desfibriladore bat; anima zaitzete!



## HILEA ARGAZKITAN



## HERRIKO JUBILATUEKIN BATZARRA

Apirilaren 3an, igandea, Udalak herriko erretirodun eta pentsiodunei dei egin zien jendaurrereko bilera bat egiteko "Gure Etxean". Bileraren helburua honakoa izan zen: lokal hori kudeatzeko hartutako azkeneko erabakien berri ematea (informazio gehiago [www.bakio.org](http://www.bakio.org) web gunean aurkituko duzue). Izan ere, batzarrean azaldu bezala, orain arteko lokalaren kudeaketa irregularra izan da. Era berean, martxoaren 30eko Osoko Bilkuran aho batez lokalaren kudeaketaz hartutako erabakiaren berri eman zen: gaur egungo kudeaketari amaiera ematea eta funtzionatzeko bide alternatiboak aurkitzea.

hiru hilerik behin, hemendik aurrera emango diren urratsak azaltzeko, intereseko gaiak buruz eztabaidatzeko eta Gure Etxearen proiektu berrituaren jarraipena egiteko. Halaber, Udalak azpimarratu zuen Gure Etxea ez dela itxiko eta elkartearren zereginak koordinatzen dituen zuzendaritzari babesa eta laguntza emango dizkiola. Izan ere, Udalak argi dauka Gure Etxearen proiektu berrituaren helburu nagusia zahartzeko aktiboaren aldeko ekimenak bultzatzea dela. betiere herriko erretirodun eta pentsiodunen interesak babestu eta errespetatu.

Informazio bilera horretan Udal Gobernuak bilera irakikiak egiteko konpromisoa hartu zuen kolektibo honekin, gubxi gorabehera

## ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK BANATZEKO ORDENANTZA PRESTATZEKO LAN-TALDEA

Herriko kiral eta kultur elkarteak diru-laguntzak banatzeko ordenantza prestatze aldera, Udalak prozesu parte-hartzaile bati ekin dio. Gaur egun ordenantza bat indarrean egon arren, azken urteotan ez da behar bezala aplikatzen izan eta laguntza mota hauek diru-laguntza nominabito bihurtuta egon dira. Eztabaida-prozesu honetan elkarteetako ordezkariak, udal ordezkariak eta teknikariak esku hartzen dute. Bilerak herritarrentzat ere irekiak dira: bozkarik ez duten arren, bilera guztien amaieran galderak egin eta zalantzak eta gogoetak azaldu ahal dituzte. Lehenengo bilera martxoaren 16an izan zen.



## BERBA LAGUN TALDEAK MARTXAN

Martxoan hasi ziren Berbalagun taldeak elkartzeko. Ekimen honen bitartez, euskaraz berba egiteko ohitura daukatenak eta praktikatu gura dutenak talde bikietan elkartzeko dira, euskaraz-mailla hobetzeko, sarriago eta segurua erabiltzeko, eta, azken finean, euskaraz bizitzeko, 16-18 pertsonen parte hartzen dute hiru taldeetan elkartuta, astean behin kiroldegian, kultur etxean zein tabernan.

Euskaraz konfiantza hartu gura baduzu edota euskaraz ondo konpontzen bazara eta berba egin gura duenari lagundu nahi badiozu, anima zaitzete!



## KONTRATAZIOAK

Udalak "Harmena Lex" enpresa kontratatu du aholkularitza lanetan aritzeko sei hilabeterako. Kontratu honen kostua, 8.750€-BEZA izango da. Bere lanaren helburua, udalean martxan ditugun prozesu guztietan aholkularitza juridikoa ematea izango da.

Oraingoz herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetu nahian hurrengo asteetan martxan jarriko diren zenbait kontratazio prestatzen dihardugu. Gubxi barru prest izango dira besteak beste, lorazaintza eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuen esleipenerako kontratazioak.



## 2015EKO LIKIDAZIOA ONARTU DA

Martxoan, 2015. urteko likidazioa onartu zen alkatetza dekretu bidez. Hurrengo asteotan agerraldi publiko bat antolatuko du Udalak, egoera ekonomikoaren berri eman eta balorazioa egiteko. 2015. urtea 371.746,99€ko gerakin positiboarekin bukatu da. Diru hau 2012. urtean kontratatutako kreditua amortizatze erabiliko da, legeak horrela behartzen duelako. Likidazioaren ondorio nagusia: 2015. urtean aurrekontua, doikuntza plangintzaren arabera exekutatuta, zorrari eta egonkortasunari dagokienez.